

"Tubi" txapelkun barrero Euskadiko Lasto Botatze Txapelketan

10. orrialdea

Lemoako Kirol Astea 14tik 20ra

Zemendiaren 14tik 20ra, Udalak eta herriko kirol alkarteak antolatuta, kirolaren gaineko berbaldiak, bideo emonaldiak, erakustaldiak, txapelketak eta beste ekitaldi batzuk egongo dira Lemoako Kirol Astean. Mendia, Nordic Walking, Hapkido, eskupelotea, zunba eta herri kirolak hobeto ezetu eta praktiketako aukera egongo da. **11. orrialdea**



Kontzertuak eta kalejirak musikearen egunaren inguruan

12. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

262

2016ko zemendiaren 15a
hamabostekaria
www.begitu.org

Indarkeria sexistaren kontrako kanpaina

Andrakanako Indarkeriaren Kontrako Nazinoarteko Egunaren inguruan, Arratia eta Zeberioko andra taldeak, talde feministak, udalak eta Mankomunitateak hainbat ekitaldi antolatu ditue.

Indarkeria sexista mota guztiak prebenidu eta salatuteko, "Kokoteraino gaude, ez hemen ez inon" lemapean, arratiarrak manifestazioa egingo dabe zemendiaren 25ean Igorren. Herrietan, tailerrak, berbaldiak, zinea, antzerkia, ipuin irakurketa publikoa, Beldur Barik Arratia Lehiaketako sari banaketea eta beste ekintza askok osotuko dabe zemendiaren 25aren inguruko egitaraua.

Andrakanako indarkerien artean, genero indarkeria dago. 2016an, zemendiaren 1era arte, Arratiako Udalen Mankomunitateko Gizartekintza Zerbitzuak, 23 andrazko atendidu ebazan genero indarkeria dala eta. **7. orrialdea**



Erabakitze eskubidea gauzatzearen alde Diman



Dimako Alkarregaz Gure Esku Dagok antolatuta, erabakitze eskubidea gauzatzearen inguruan egin eben berba Iñaki Antiguedadek, Jaume Lopezek eta Juan Jose

Ibarretzek. Politikan ibilbide esanguratsua egin daben hiru irakasle honeen ustez, erabakitze-ko eskubidea, nazino kontua baino eskubide demokratikoa da. **8. eta 9. orrialdeak**

ARRATIA

Transgeniko eta glifosato bako Arratiaren aldeko kanpaina

Igitiak, Arratiako Baserritar Agroekologikoen Alkarteak eta Arratia Bizirik, eskualdea transgeniko eta glifosato bako guinea izatea gura dabe. Honeen arriskuez jentea sensibilizetako, bideo emonaldia eta berbaldia antolatu dabe, eta plenoetan Arratia transgeniko eta glifosato bako guinea izentatzeko mozinoak aurkeztuko dabez.

Transgenikoak, lurak eta urak kutsatzen ditue, biodibersitatea gixitu eta elikadura eredu jasangarriko mehatxua dira. Igitiak emondako datuen arabera, Europako herriarren % 61 transgenikoen kontra dago.

Glifosatoak herbizidetan dagoz eta kartzinogenotzat jotzen dira. **5. orrialdea**

DIMA

Lau auzo batzar gehiago 2017ko aurrekontuetarako ekarpenak egiteko

Aurreko hamabostaldian hasi zan Dimako Udala auzotarrak batzarrak egiten eta oraingoan beste lau gehiago egingo ditue. Batzarrotan, auzokoen eretxiak eta ekarpenak jasoteaz gainera, udal ordezkariak udal jardurearen barri emon eta diru kontuak azaldu egiten dabez. Udalak buzoiak ipini ditu tabernetan, ludotekan eta beste hainbat lekutan herriarren ekarpenak jasoteko. **7. orrialdea**



AREATZA

Aurrekontuak egiteko batzarrak

Areatzan zemendiaren 17an hasiko dira 2017ko aurrekontuetarako batzarrak egiten. Lehenengo batzarra zemendiaren 17an izango da. Bertan, Azpiegitura, Tokiko Garapena eta Hirigintza landuko dabe. Hurrengo hilaren 23an, Kirola, Kultura eta Aisialdiaren gainekoa izango da. Batzar Orokorra abenduaren 1ean egingo dabe eta abenduaren 13an, 2017ko aurrekontuetako zirriborroa aurkeztuko dau Udalak. Abenduaren 22an, aurrekontuak Udalbatzan aurkeztu eta onartuko dirala espero dau alkateak. **5. orrialdea**



ARRATIA ZURI-BALTZEAN

FELIPE MANTEROLA, ARRATIAKO LEHEN ARGAZKILARIA

Hainbat etnografia lanetan ikusi daitezke Arratiako eta batez be Zeanuriko argazkiak, sarritan oinanean egilearen izenik idatzi barik. Sekulako balioa daukien argazki horreen egilea gehienetan Felipe Manterola zeanuriztarra da, Arratiako lehenengo argazkilaria.

Felipe Manterola, 1885ean jaio zan Zeanurin eta bertan bizi izan zan 1977an bere heriotzea gertatu arte. Familia herriko kafe-txearen eta estankoaren jaubea zan eta negozio honetan emon eban bere bizitza gehiena Felipek, lehenengo alargun geratu zan amari lagunduz, eta geroago bera arduratuz.

Bere kafetxe eta estankotik jente ugari igarotzen zan: Arabako Lautadara joateko autobusaren zain

egozan bidaiariak, merkantziak eskeintzen eutsiezan saltzaileak, Gorbeira etozan mendizaleak, Artea eta Areatzako bainuetxetara etorten ziran udatiarrak... Era askotako jenteagaz eukan tratu, eta era guztietako albisteak heltzean ziran bere belarrietara. Holan, baserri giroa eta uriko eraginak buztartzen ebazan nortasun polifazetikoa osatu eban: dendaria izateaz gain, autobus gidari moduan be egin eban behar, Banco de Bilbaoren eta Banco de Crédito Agricolaren ordezkaria izan zan eskualdean, astia eukanean trikitixea jotzen eban Estudiantina Ceanuriense herriko taldeagaz, eta argazkilaria be izan zan.

Argazkilaria legez, bere lehen irudiak 1904. urtearen ingurukoak

dira. Manuel Arriola, Zeanuriko Eleizearen patronoak zaletu eban argazkigintzan eta hurrengo urteetan, 1936an gerrak eztanda egin arte, gora eta behera ibili zan kamareagaz. Errebelatua be etxean eukan estudiantin egiten eban. Dana dala, argazkilaritza lanbidez hartu ez baeban be, herri eta inguruko familiak, erlijiosoak, udatiarrak zein erakundeak beragana jotzen eban erretratuak egiteko. Hainbat argitalpenetan be erabili ziran Felipearen irudiak: Novedades aldizkarian, Geografía General del País Vasco-Navarro entziklopedian, Eusko Folklore urtekarian, *Folclore y costumbres de España* liburuan, Julio Caro Barojaren *Los Vascos* liburuan, aita Barandiaren zuzendutako Euskaldunak



Felipe Manterolaren autoerreturatu.

en... Bestalde, postalen bildumak be egin ebazan; horreetako batzuk Alemanian argitaratu ziran, beste batzuk Frantzian eta Bilbon.

Felipe Manterolaren maisutasuna eta sensibildade berezia kopiak margotzeko moduan eta egiten dituan fotomontaketetan be islatzen da.

Argazkilaritzearen munduaz

gain zinemarena be ikutu eban, eta 1930. urtearen inguruan 16 milimetroko kamara bategaz, Zeanuriko eguneroko bizitzeari eta jazoerari buruzko filmaketak egin ebazan; irudi hareetako batzuk gaur arte konserbau dira.

Gerra zibilak Felipe Manterolaren argazkilaritzako lan emonkorra eten egin eban. 1937ko abuztuaren 4an atxilotu egin eban, eta hainbat kartzelatan egon ondoren, 1940ko bagilaren 12an askatu eban. Etxera itzuli zanean 55 urte eukazan. Gerra ostean argazkilaritzako hornidurak eskasak ziranez, adinean aurrera joianez eta bizitako guztiz gogorra izan zanez, bertan behera itxi eban 1904an hasitako afizinoa, eta bakar-bakarrik noizean behin familiarreko argazkiren bat egiten jarraitu eban. Edozelan be, gerra osteko urteetan lehenagoko argazki batzuk akuarelaz margotu ebazan.

Jon Urutxurtu

TELEFONO INTERESGARRIAK

<p>Larrialdiak Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00 SOS DEIAK 112</p> <p>Guardiako Farmaziak 09:00etatik 22:00etara Zemendiaren 14tik 20ra Badiola. Artea. Herriko Plaza 7 Tel.: 94 631 73 11</p> <p>22:00etatik 09:00etara Iruarrizaga. Amorebieta-Etxano.</p> <p>Zemendiaren 21etik 27ra Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15 Tel.: 94 673 93 22</p> <p>22:00etatik 09:00etara Aranburu-Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.</p> <p>Zemendiaren 28tik abenduaren 4ra Rodríguez Martínez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27 Tel.: 94 673 61 09</p> <p>22:00etatik 09:00etara Guarrotxena. Amorebieta-Etxano. Zeberioak ez dau guardiarik egiten.</p> <p>Urte osoan 22:00etatik 09:00etara Lucía Luño. Kareaga Goikoa 16. Basauri.</p> <p>Medikuak Arantzazu: 94 631 56 89 Artea: 94 673 92 11 Areatza: 94 631 71 52 Bedia: 94 631 34 13</p>	<p>Dima: 94 631 56 30 Igorre: 94 600 74 63 Lemoa: 94 631 31 16 Ubide: 945 45 03 61 Zeanuri: 94 673 91 49 Zeberio: 94 648 20 79</p> <p>Udaletxeak Arantzazu: 94 631 56 89 Artea: 94 673 92 05 Areatza: 94 673 90 10 Bedia: 94 631 42 00 Dima: 94 631 57 25 Igorre: 94 631 53 84 Lemoa: 94 631 30 05 Ubide: 945 45 03 22 Zeanuri: 94 673 91 46 Zeberio: 94 648 10 79</p> <p>Udalen Mankomunitatea 94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15 Gorbeialde 94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01 Parketxea 94 673 92 79 Igorreko Kultur Etxea 94 673 62 51 Gorbeialde Irratia 94 631 52 90 Euskotren 902 543 210 Areatzako Notarioratza 94 673 92 26</p>	<p>Bizkaibus* 902 222 265 Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era. Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan. Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan. Orduro: 05:45etik 21:45era. Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.</p> <p>Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro. Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.</p> <p>Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengo 22:15ean Galdakaoraino. Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30 minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean Galdakaoraino.</p> <p>Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo. Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.</p> <p>Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.</p>	<p>Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.</p> <p>Otxandiotik urteerak: Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro. Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.</p> <p>Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro. Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.</p> <p>Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik) Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.</p> <p>Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik) Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.</p> <p>Artea-Zeberio-Arrigorriaga Arteatik urteerak lanegun eta zapatuetan 06:55ean eta 13:55ean. Jaiegunetan ez dago zerbitzurik ez.</p> <p>Zeberio-Arrigorriaga Lanegun eta zapatuetan 07:10, 08:10, 09:10, 11:10, 14:10, 15:10, 16:10, 18:10, 19:10, 20:10</p>	<p>Jai egunetan 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.</p> <p>Arrigorriaga-Zeberio-Artea Arrigorriagatik 12:40ean urtetan dan zerbitzua Arteaoraino heltzean da lanegun eta zapatuetan. Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.</p> <p>Arrigorriaga-Zeberio Lanegun eta zapatuetan, 07:40, 08:40, 10:40, 12:40, 14:40, 15:40, 17:40, 18:40, 19:40, 20:40. Jai egunetan, 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.</p> <p>La Union* 94 427 11 11 Bilbo-Gasteiz Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandiokoak 16:00etan. Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:30ean urtetan dau Bilbotik. Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandiokoak 18:30ean.</p> <p>Gasteiz-Bilbo Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta Otxandiokoak 10:30ean. Zapatuetan: Otxandiokoak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean. Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandiokorik ez dago.</p>
--	--	---	--	--

Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.
Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.
Telefonoa: 94 631 73 14.
Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com
Webgunea: www.begitu.org
Zuzendaria: Iñigo Iruarrizaga.
Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.
Erredakzino taldea: Ainhoa Duñabeitia.
Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarrizaga.
Publizidatea: Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.
Banaketea: Marta Rodríguez, Pablo Rodríguez eta Rut Rodríguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte (Dima), Esti Olibares, Iker Perez eta Ismael Martínez (Igorre) eta Ainhoa Mendia eta Irati Urien (Arantzazu, Artea eta Ubide).
Tirada: 7.000 ale.
Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

Ale kopurua 7.000 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:

ARANTZAZU

AREATZA

ARTEA

BEDIA

DIMA

IGORRE

LEMOA

UBIDE

ZEANURI

ZEBERIO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundutakoa

EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikako Sailburuordetza

GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Vicesecretaría de Política Lingüística

foru aldundia
diputación foral

ZEURE BERBEA

Gure Esku Dago = herritarrena eta plurala

Solasaldi interesgarri eta argigarria entzuteko aukerea izan genduan pasa dan barikuan, Dimako frontoian, Alkarregaz Gure Esku Dagok antolatutako ekitaldian. Ni sikan gehiago entzuteko gogoagaz geratu nintzan.

Erabakitze eskubideari buruzko gogoeta eta erispideak eskeini ebezan bertan, Catalunya Jaime Lopez, Pel Dret a Decidir plataformaren sortzaileetako bat, Juan Jose Ibarretxe, Agirre Lehendakari Center ikerkuntza zentrok zuzendaria eta Iñaki Antiguedad moderatzaileak.

Hizlariak, gure etorkizuna eragiteko erabakitzeko eskubidea gakoa dala argi itxi eben.

Erabakitze eskubidea, nazino kontua baino eskubide demokratikoen kontua dala, hau da, nazino edo herriak jagokien eskubidea izan bada be, personai eta gizarte zibilari jagokon eskubidea dala batez be.

Beraz GED ez da abertzaleen aldarrikapen bat bakarrik, ez da independentziaren aldeko mobimentua bakarrik, nik ebatzi neikelako Espainagaz (edo Frantziagaz) beste era bateko enkajea izatea.

Jaumek dibortzioen kasuak aita-ut abazan adibide modura eta oso adierazgarria iruditu jatazan.

Dibortzio baten, dibortziau gura

ez dauanak ez dau balio gehiago izan behar joan gura dauanak baino. Harreman hori apurtu gura dauanaren borondatea ezetu eta errespetau egin behar da. Epailea ez da sartu behar joan gura dauanaren errazoiak aztertzen, berak jakingo dau. Epaileak (edo Estadia gure kasuan) prozesua ondo eta demokratikoki egiten dala ziurtatu behar dau, besterik ez. Gehiengo batek demokratikoki hartutako ebatziak errespetau behar dira.

Geurera etorrita, zemendiaren 27an, Diman herri galdeketa egingo dabe. Hona heldu aurretik Dimako GED taldeak lan handia egin behar izan dau. Zorionak egindako ibilbideagaitik!

Arratiako beste herrietan be bide eta lan horri ekitea litzateke gure erronka.

Eta zelan egin daikegu?

Nire ustez, gauza bi argi eta garbi barneratu behar doguz. 1- Gure Esku Dago, herritarren ekimen bat dala eta ez partiduena. 2- Pluraltasun ideologikoa ezinbestekoa dala, barne funtzionamentuan zein jardueretan bermatu behar da. Aniztasunaren berme barik Gure Esku Dago ekimenak ez dauka etorkizunik.

Premisa bi honeek ez dira diskurso hutsa, bete beharreko baldintza baizik, eta horrek danon aldetik ahalegin berezi bat eskatzen dau. Ziur nago herritarren gehiengo erabakitze eskubidearen aldekoak gara, beraz Gure Esku Dagon daukagu alkarlana bultzatuteko aukerea.

Erexi eta idea desbardinak, nahiz gizartea antolatu eta egituratze-

ko eredu desbardinak doguzan artean, alkarguneak eta pluraltasuneko espazioak landu behar doguz. Erabakitzeko eskubidearen aldarrikapenak batzean gaitu.

Ekitaldian Dimako koruak abesutako bertsoak dinoan moduan: "Eskua emonda zenbat eta batuago; danok joango gara hainbat urrunago...".

SARA GUTIERREZ EGILIOR

Zemendiaren 25ean Andranako Indarkeriaren aurkako Nazinoarteko Eguna ospatzen da

Animozko, laguntzako eta kontzientziatzako berbak, ez dira lar inportanteak edozein indarkeria mota jasan daben andrentzako, baina balio dabe guztiak batzeako, burrukan alkarregaz egoteko.

Emakumea, bizitza emoten dauana da, min egiten badeutsazu, munduari be min egiten deutsazu. Gizonen eta andren aurretik, personak gara danok. Gizon eta andren arteko desbardintasuna bakarrik dago azalaren sakontasunean. Antzekotasunak, bihotzera doaz.

Gure adimenak sortu egiten dau, baina indarkeriak suntsitu. Mundua, ukabila itxita baino handiagoa da. Ez egin ezelango tratu-rik indarkeriagaz, beti galdu egingo dozu eta. Andrearen begietara begiratu eta bere sufrimentua ikusi. Nahiz eta arazoan errudun ez izan, konponbidearen arduradun zara. Indarkeria, besteen ideai bildurra eukitzea da, balore eta amorruari aurre egiteko... indartsuagoak dira.

Gizonak ez zaitu jotzen altua edo bajua, argala edo lodia, tontoa edo inteligentea, lizentziatua edo ez-jakina izateagaitik... jo egiten zaitu andrazkoa izateagaitik soilik.

Ez isildu andranako indarkeriari buruz berba egiten zabilzanean, lagundu egoera honetatik pasetan dagoan andreaki eta indarkeria salatu!

ANDONI VAZQUEZ

ERETXIA



MAITENA MONROY

Indarkeria sexistan aditua

Matxismotik be urten daiteke

Biktima izatea zer dan esaten hasiko naz, jakin daigun nori lagundu. Beste batek eragindako kalte ebitagarria sufriduten dauana da biktima.

Indarkeria sexistean biktimak, baldintza hau beteten dabe. Baina sufridu daben indarkeria ez da bakarrik ebitagarria erasotzailearen aldetik, sistemeak be ebitau daike. Sistemea, gorputzik ez, baina suntsitzeko gaitasun handia daukan izakia da. Indarkeria sexiste erasotzaileetatik harago doa. Hau da, erasotzaileak indarkeriaren eragile materialak dira, baina ez ideologoak, ezta legitimatzaileak be. Ideologo eta legitimatzaileak ez dira odolez zikintzen baina euren konzientzia, lege eta diskursoetan, milaka andren kontrako eraso, bortaketa eta hilketa dagoz.

Izan be, sistemeak ezer ez dauanean egiten hurrengo hilketa matxistea ebitetako, horren konplize da. Gogoratu behar da, aurtan 60 andra hil dituela eta horreetako % 42 baino gehiagok salaketea ipini ebela. 2015ean hildakoen artean, lauk babes agindua eukien erahil ebezan momentuan.

Baina sistemea ez da konplizea bakarrik hil ala biziko egoeren aurrean, indarkeria sortzailea be bada prebeniduteko lan ez egitearren eta diskurso eta praktika sexistak sustatzearren. Izan be, 2015eko aurrekontuaren % 0,01 baino ez zan izan bardintasunerako eta indarkeria sexisteagaz amaituteko.

Egia da gizartean matxismoaren legitimizazioaren krisia sortu dogula. Horren aurrean erasotzaileak estrategikoago egin dira. Eta jarraitzaile asko ditue. Jarraitzaile honek ez dabe indarkeria basa-

tiena legitimatuten, baina hilketea edo muturreko indarkeria ez diran indarkeriak parkatzen dabez.

Horregaitik jarraitu behar dogu azaltzen tratu txarrak, erasoak eta sexu indarkeria ezin dirala banandu. Gizon eta andrentzako gauza desbardinak ezartzen dituan sistemeak indarkeria eragiten dau. Neurri desbardinak erabilten dira: gizonai onartzen jakiezan gauzak, andrai ez. Gogoratu behar da inor ez dala mespretxatzen, baztertzen edo hiltzen gizona izateagaitik; bai, ordea, andrazkoa izateagaitik. Eta hau ez da barria, ez da epidemia bat, ez da belaunaldi baten edo bestearen kontua, *continuum* transkulturala baino.

Baina matxismoagaz amaituteko erremintak dagoz.

Zenbat eta gehiago egin geure bizitzan bardintasunaren alde, orduan eta gehiago egingo dogu andranako indarkeriagaz amaitzeko. Aztertu behar dogu ze balio emoten deusagun gauza bakotxari, egilearen sexuaren arabera. Edo egin daigun hausnar-keta kolektibo bat, bardintasunaren alde egiten dogunaren gainean, egunero jaikitzen garantetik oheratu arte.

Andrai esaten jakieanean, sufridutako indarkeria kontetako, ez isiltzeko, askotan gertatzen da behin baino gehiagotan kontau dabela, baina indarkeria horren normalizazioagaz egin dabela topo, eta sarritan, sufridutako indarkeriaren errudun egin dabez.

Sasoia da gizon matxistai esateko, biktimarenak ez egiteko, ez saiatzeko euren portaerea zuritzen alkohola, haurtzaroa edo zelaia errua botata, eta euren ekintzen ondorioen kargu egiteko. Ondo dakie noren kontra, zelan, noz eta zertarako erabili indarkeria eta.

Sasoia da, gizartea biktimakaz solidarizetako eta euren Erreparazio prozesuan lagunduteko. Biktimen errekonozimentua funtsezkoa da, eta memoria kolektibo eta historikoa eregi behar dogu indarkeria sexiste argi eta garbi gaitzesten, andren Giza Eskubideak urratzen ditualako eta gizarte moduan lotsarazten gaitualako.

Sasoia da gizon matxistai esateko matxismotik be urten daitekela.

* *Erredakzinoan itzulia*

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, berrik eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Eskegi



Eskegi berbearen esangurea hauxe da: edozer gauza punta batetik oratuta, dingilizka jarri edo ipini, kako baten esaterako. Eskegi (eskégi, agoskatuta), euskera batuaz, eseki esaten da. Nork ez dau ikusi balkoi baten erropea eskegita, sikatuten, edo nork ez dauka etxeko salan lanpara argidun bat eskegita? Beste adibide batzuk: "Jausi egin nintzan bai, eta besoa eskegita eroan beharko dot datozen lau asteetan"; "Ikurriña, urrezko katean samatik eskegita eroaten dot".

BATZ 50 urte

BATZ, S. KOOP.
Torrea auzoa, 32
48.140 IGORRE (BIZKAIA)

IZAN GINAN...
...BAGARA ETA IZANGO GARA

Erredakzioa
Batzen gaitu

MONDRAGON

LUMATUTEN



**JUAN MANUEL
ETXEBARRIA AYESTA**

Zemendikaria

Zemendikaria zer dan itandu eta aikomen erantzuna. "Zemendikaria zer jatzun? Ba, zer izango da ba, zezina edo ganadu okela gatzartua.

Aiko. Gaur besteko modurik ez geunkanean, negua luze egiten jakun, eta, txarria ezeze, zemendikaria be hiltzen zan. Izena be hortixik jatorko, zezin beharrak zemendi inguruan egiten ziralako. Gehienetan, herribehia edo basabehia hazi edo loditzen zan horretarako. Klaro, edozein ganadu ez genduan hiltzen zezinetarako, jeneralean, zeinda, zekorra bota eta emaritu ezin dan beintxe bat edo antzu lotu danaren bat. Segun zelango ganadua, erdibana be igual hiltzen genduan familiakoakaz edo auzokoakaz, batez be ganadu hazitua edo erralde askokoa izan ezkeru.

Beste batzuetan, beintxea barrik ahuntza edo ardia be hiltzen genduan zemendikari moduan. Badakizu, ahuntzak eta ardiak be, antzutu egiten dira eta ba ondo etortzen zan noizik behinean ho-

lango bategaz zezina egitea.

Eta, ba, gero, ganadu osoa aprobetxetan genduan, okelea zezina egiteko itxi eta gainetikoagaz ba, hainbat gauza, zeinda, barruzkiak jan, edo odoloste eta buzkantzak egin, baina seboagaz. Honeek ganaduok seboa daukie, eta ez gantzagi edo koipea txarriak legez. Klaro, sebodun odolosteak bero-beroan jan behar dira ze ezpabere seboa zurutu egiten da eta ez dauka graziairik, ahoan hazi egiten jatzu sebo-kiratsa. Horrexegaitino esaten dogu herrian hau esakera hau: "odolosteak eta ezkontzea beroan".

Bueno, eta okeleari gatza emoteko sano ondo igurtzi behar da gatz lodiagaz eta gero tinakoan sartu gatza ondo hartu daian. Gero, beratu eta ba eskegi egiten zan sikatuteko. Behin horraz gero, ba zati meheak ebagi eta gozogojo jan, bueno, gazi-gozo hobeto esateko, izan be, orduan entramea be handia geunkan eta dana gozo, ez oraingo moduan, mizkatuta, mizkean mizkeagaz jan gura ezik.

Ba horixe jatzu zemendikaria. Gero txarria be hiltzen zan, bueno, gaur be bai oraindino eta ondo etortzen da, gauza surtidua da txarria. Txarria-hiltorduan be beste esakera bat daukagu hemen, zera, "txarria hileko astea eta ezkonduko urtea onenak", ai ene, bizimodua, surteko laratzu baltzak dakiz horreek kontuok!

Gaur egun, zezina egon badago salgai baina nebera modemoai esker, gatzartubako edozein jenero daukagu esku eskura. Lehengokoak ezetu baeuskuen gaurkoa, sinistu be ez". Biziak bizilan!

ZERTZEAN



JANIRE LOPEZ

Zegan dago sasoi honetan kresal likatsua zaporea? Zegan ekaitza sartu orduko zeru amorratuaren kolorea?

Zegan edertasuna, benetako edertasuna, sudur harro okertu amaigabeena, begi-zulo hausnartiena, azal-zurbiletako zimur matazatuena?

Eroateko jarristezuz denak, arren.

Apuntatu zorra nire galtzerdi zulatuan. Oraingoan niretzako ez, lagun batentzako behar ditut, begi-zuloetatik erraietara sar dakizkion, eta zainetan zehar barreiatu, artxila-murtxila, beldur guztiak txikertu arte.

* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eremuan ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITU argitaratu gura izan ezkeru, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

Heldu dagion

Erauzi ditzan penak, paper-pintatua erauziko leukeen moduan, eta etorkizuna erabakitasunez mamurtu, atzamarren puntak amildegiaren lokatzetan hondoratuz, zirt eta zart, oinazeari berari be bizi-mina harramazkatzeko.

Etsipena ipuin horixka bat baino ez da, eta han be, otsoak oinutsik.

Bilduistezuz, bada, lehen baino lehen ume galduenen itxaropeni eutsiteko erabilten dan paper koloretsuan, bidali diezazkiodan gaur bertan, negar-malkoetan bustita be bigunduten ez diran gailleta-kutxa horietako batean.

BEGI TXINDORRA

Arriarrok edozein lekutara ailegetan gara. Eta gure ikasketen artean aldean daroaguz inguruak irakatsitakoak be.

Elene Etxebarria Artabek Areatzan jaioa izanda, ondo ikasita dauka jai eta antzekoetan parte hartutearen kontua. Edonora daroa hori.

Beste aldetik, etxean hasi eta Igorreko Institutuan segida izan eben kartaldi sutuak emon eutsien jakintza be ez dauka aitzuteko, antza. Igual beste gai batzuk baino hobeto gogoratuko dau, ze Londreseko Euskal Elkarrekin atzenengo 11 urteotan antolatua dauan aurtengo Mus Txapelketako irabazle izatea lortu dau.

Zorionak! Eta txapela buruan, ibili munduan.

Maite Artabe Urkiri



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscl.com

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika
Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologia
Bidebarri 1. behea
48140 Igome-Blokaia
T. 94 631 50 39
Hilegatu Zerbaita 100
R.P.S. 21/06

begitu
arria ubide zaberoa

FISIK
FISIOTERAPIA ETA
ERREHABILITAZIO ZENTROA
Tel. 94 685 11 16
LEHENDAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE

AREATZA

2017ko aurrekontuak egiteko batzarrak hilaren 17an hasiko dira



Erredakzioa

2017ko aurrekontuetarako herritarren parte hartzea bermatutako hiru modu egongo dira Areatzan. Holan, batzarretan, areatzapartehartzea@gmail.com helbidera idatzita edo Udalak herrian ipiniko dituan buzoiak erabiliz abenduaren 4ra arte, egin lekiez billaroztarrak aurrekontuetarako ekarpenak. Buzoietan sartzeko fitxak aterako ditu Udalak. Batzarrak arrastiko 19:00etan izango dira.

Lehenengo batzarra zehazkiaren 17an izango da. Bertan, azpiegitura, tokiko garapena eta herrigintza landuko dabe. "Hau da, zelango herria gura dogun, zelango obrak egin gura doguzan, ea akzesibilitateari lotuak dagozan, espaloiak, karkaba pilo bat daukaguz Areatzan eta ea zer egin gura dogun horreekaz, eskolako eraikuntzagaz amaitzen dogun ala ez..." azaldu deutso BEGITUri Asier Garcia Areatzako alkateak. Turismo Plana, komertzioak bultzatzeko beste plan bat eta Udalak daukazan eraikin eta esparru publiko guztien banaketa egokia zelana egin, hau da, azpiegituren politikea be landuko dira batzar horretan.

Hurrengo batzarra hilaren 23an, kirola, kultura eta aisialdiaren gainera izango da. Han, billaroztarrak, zelango kultur programazioa, jaiak, zelango gaztelekua eta zelango ludotekea gura daben eztabaidatuko dabe, besteak beste.

Batzarretan zein beste moduak erabilia jasotako ideia guztien barri eukiteko Batzar Orokorra egingo dabe abenduaren 1ean, eta 13an Udalak, 2017ko aurrekontuetako zirraborra aurkeztuko dau. Aldaketak egiteko egun batzuen ostean, abenduaren 22an, aurrekontuak Udalbatzan aurkeztu eta onartuko dirala espero dau alkateak.

Eskola-umeak be parte hartzen
Aurten, Udalak aurrekontuen gainera proiektu bat ipini dau

martxan eskoleagaz batera. Diru partida batez zer egingo leukien azaldutako LH1etik gorako umeak udaletxera joango dira, euren eretxia emoten. Batzarretan erabilten dan dinamika bardina erabiliko dabe umeakaz "ikusiko da zeintzuk diran euren beharrianak, eta azalduko jakie zer egin dan horreek beteteko. Gero, azalduko jakie euren ideetatik zeintzuk hartu diran eta zeintzuk itxi diran hurrengo urterako" dino alkateak.

Diru partida bat zertan gastau eta nori emon be ebatziko dabe herritarrek. Horretarako sistema bat ipiniko dau Udalak korreoaren bitartez. Etekin asmorik gabeko kooperazio ekimenentzat hiru mila euroko partida bat dago eta diru hori zein fundaziori emon herritarrek ebatziko dabe botazino baten bidez. Errefujiadu, ume edo andren indarkeriaren kontra behar egiten dauan fundazionoren baten izango da dirua. Lehenengo aukerea urten ezker Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformeak aukeratu dau fundazio edo erakundea. Herritarrek bigarrena aukeratu badabe, hau da, umeakaz lan egiten dauan fundazio bateri ebatzen bada, guraso alkateak eta eskolak alkarlanean ebatziko dabe zeineri emon. Dirua genero indarkeriaren kontra behar egiten dauan fundazio bateri emon gura badeutsie, Areatzako Emakumeen Foroak ebatziko dau zeinentzat izango dan.

Diru gitxiago Udalkutxatik

Udalkutxatik igaz baino diru gitxiago sartuko dala eta diru bat be itzuli egin beharko dala aurreikusuten dau Asier Garcia.

Alkatearen arabera, igazko aurrekontuetan onartutakoaren % 90tik gora eginda dago. Urtea amaitu baino lehenago falta dana amaitzen saiatuko dira, eta udal antolaketearen gainera plan bat egiten hasiko dira.

ARRATIA

Transgeniko eta glifosato bako Arratia egiteko kanpaina hasi dabe Igitiek eta Arratia Bizirik-ek

Erredakzioa

Igitiek, Arratiako Baserritar Agroekologikoen Alkartek eta Arratia Bizirik-ek, eskualdea transgeniko eta glifosato bako gunea izatea gura dabe. Honeen arriskuez jentea sensibilizetako, bideo emonaldia eta berbaldia antolatu dabe, eta zehazkiaren 25ean, udaletxetan Arratia transgeniko eta glifosato bako gunea izentatzeko mozinoak aurkeztuko dabez.

Glifosatoa herbizidetan dago. Igaz, Osaunaren Mundu Erakundeko (OME) minbiziaren ikerketan diharduan nazioarteko agentziak, glifosatoa "ziurrenik gizakiarentzako kartzinogenotzat" jo eban. Eta Europako araudiaren arabera, ezaugarri horreek daukazan substantzia aktibo bat erabiltea ez da baimenduta egon behar, ez badago frogatuta erabilteak egiten dauan kaltea txikia dala. Europar Batasunean, substantzia kimikoen klasifikazioaz arduratzen dan agentziak glifosatoak osasunean daukan eragina

aztertzen hasteko asmoa daukala dinoe Igitiekoak, baina prozesu hori 2017ko amaierara arte ez dala amaituko.

Transgenikoak, baserritarrei eta elikadura eredu jasangarriari suposatzen deutseen mehatxua ezagunagoa da. Gainera, lurra eta urak kutsatzen dira eta biodiversitatea asko gutxitzen da. Ho-

regaitik, Igitiek emondako datuen arabera, Europako herritarren % 61 transgenikoen kontra dago.

Bideo emonaldia eta berbaldia

Transgeniko eta glifosatoak eragiten dabezan kalteen barri jakiteko, *El mundo según Monsanto* dokumentala ikusteko aukerea egongo da zehazkiaren 17an, Igorreko Axular Herriko Tabernan. Hilaren 24an, EHNE Bizkaiko Esti Redondok transgenikoen inguruko berbaldia emongo dau Arteko Herriko Bentan.

Horrezaz gainera, zehazkiaren herrietan mozinoak aurkeztuko dabez, Arratia "transgenikorik gabeko gunea" eta "glifosatorik gabeko gunea" izentatzeko eskatuz.



DIMA

Baltzolako koben inguruko plan integrala egin gura dau Udalak

Erredakzioa

Baltzola ingurua babesteko planak orain arte egin diran beharrak aintzat hartuko ditu, baina Dimako Udalak urrunago joan eta Plan Integrala egin gura dau, aurrera begirako perspektiba batetik. Oinarrian, arduradunen ustez, ingurua ez dago behar legez jagona eta

protektzio edo babes handiagoa behar dau. Hori dala eta, Baltzola ingurua babesteko dauan Plan Integrala egiteko talde iraunkorra sortzeko batzarra deitu dau. Batzarra, zehazkiaren 24an izango da, 19:00etan, Udal Pleno Aretoan.

Udalak inguruaren balioen gainera hausnarketea egitea gura dau; hau da, interesen bat daukan

eta interesata egon litekezan artean diagnosi bateratua. Gero ingurunea ahal danik eta ondoen babesteko zein neurri hartu behar dan aztertuko dabe. Eta ebatziko dabe horretarako zein arau ipini behar diran ekintzak behar dan moduan eta adostasunean arautzeko, eta aurrerantzean protektzio handiagoa izateko. Azkenik inguruaren promozioa egingo dabe.

2014an, Dimako Udalak hainbat espezialisten ekarpenak (Aihartza, Ariznabarreta, Larrea, Uriarte, Les eta Zapata) argitaratu ebazan *Baltzola*, *Amaluraren* altzoa liburuan.

arratiako instalazioak s.l.
Berokuntza - Iturgintza - Gasa
Aireztatzeko sistemak
Aire zurgatze zentralizatua
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industrialdea
Pab. D7
Tel. Fax. 94 673 62 76
Tel. 619 736 516
48140 Igorre Bizkaia

RUGBY TABERNA

•Egin zaitetz bazkide!
•09:30etik zabalik
•Asteburretan pintxo bereziak

arratiko.zekorak@gmail.com
http://santxisme.blogspot.com/

ARA OTZ
Landareen O Jabetzen!

OPEL

ibalgane, s. Coop. Ltda.

Estazioa, 15
48330 LEIZOA (Bizkaia)
Tfn. 631 33 30 - 631 31 31
Fax 631 36 15

DIMA

Teodora Lopezeri omenalditxo, bere 100. urtebetetzeanErredakzioa

Zemendiaren 8an, Dimako Arratiako Egoitzan, Cándida Teodora López López dimoztarrak senide, lagun eta erakundeetako ordezkarien omenaldia jaso eban, 100 urte bete ebazan egunean.

Omendua 2014an sartu zan Arratiako Egoitzan. Teodora Lopezek lore-sortea, plakea eta opariak jaso ebazan, Bizkaiko Foru Aldundiko, Dimako Udaleko eta Arratiako Udalen Mankomunidadeko ordezkarien eskutik.

ZEBERIO

Zeberioko Bertako Produktuen Azokeak hamazortzi urte beteko dituErredakzioa

Zemendiaren 27rako, Zeberioko Udalak, Bertako Produktuen XVIII. Azokea antolatu dau. Goizeko 10:00etatik 15:00etara, plaza inguru eta aterpean, gaztaia, ogia, ezitia, txorizoak, fruta, egurrezko altzariak, bisuteria eta beste produktu asko egongo dira salgai.

Horrezaz gainera, animalien erakusketak eta pintxoak egiteko tailerrak egongo dira.

Zeberio eta Gorbeialdeko ekoizleak izango dira batez be, euren produktuak eskeiniko dituenak, 30 erakusmahai ingurutan.

Gorbeialderen eskutik pintxoak egiteko tailer bi egongo dira, bata 11:00etan eta bestea 13:00etan, eta bertako produktuak dastatzeko aukerea be egongo da. Abere erakusketan, ardi, oilo eta behi ederrenak egongo dira eta trikitixearen soinuak ipiniko dau animazinoa.

ZEANURI

Asterrian jaiakErredakzioa

Zemendia amaieran ospatzen dira Ander Deuna jaiak Asterrian. Bertako Urri-Barren txokoa. Zeanurin ez dira faltauko herri kirolak, bertsoak, musika eta jana. Tartean, hain sasoi honetakoa dan odoloste jana. Aikor egitaraua.

Zemendiak 26, zapatua

11:30ean jaien hasikerea. Bolanderak, eta txistulariakaz baserri artetik kalejirea.

12:00etan mezea San Andres ermitan.

Ondoren, barauskarria eta bertsolariak: Beñat Ugartetxea eta Xabat Gallettebeitia.

18:00etan herri-kirolak. Andraprobak vs. zaldi probak. Lehia: Mikel Etxebarria ardi mozten, Beñat Mendia azkoran, Julen Etxebarria eta Irati Astondoa trontzan.

20:00etan erromeria: Adolfo eta Unai.

20:30ean odoloste jana.

21:30ean gau jantzaldia Adolfo eta Unaigaz.

Zemendiak 27, domekea

12:30ean kantaldi herrikoia Lander "Txato"gaz.

Ondoren, pintxo dastaketea.

Zemendiak 30, San Andres eguna, eguaztena

19:00etan mezea San Andres ermitan.

Ondoren, txokolate jana datozen guztientzat eta jaien amaierera.

ARTEA

Udalbiltzan sartzea onartu dau ArteakErredakzioa

EH Bildu eta Aldatuz Plataformako 4 botoakaz eta EAJ-PNVren absenzinoagaz, Arteak Udalbiltza Partzuergoan sartzea onartu eban zemendiaren 9ko osoko bilkuran. Plenoan estatutuak onartu dira eta 2017ko urte hasieran sartuko da Udalbiltzan. Udalbiltza, udal eta udal hautetsien biltzarra da.

Udalbiltzaren lehentasun eta lan ildoak, lurralde garapena, kohesino sozioekonomikoa sustatzea, Euskal Herriaren egitura-tzean laguntzea, herrien arteko saretzea bultzatzea eta euskal herritartasuna sustatu eta nazi-noartean landutea dira.



DIMA

Dimetik, udal aldizkariaErredakzioa

Udalak, herriko barriak emoteko eta herritarraz komunikazioa hobetuteko asmoz, Dimetik udal aldizkariaren lehenengo zenbakia kaleratu dau. Hamabi orrialde ditu eta bertan alkatearen mezu, Partehartzeaz, Nekazaritza eta Abeltzaintza, Bardintasuna, Jaiak, Informazio ekonomikoa, Hirigintza, Euskara eta Kultura ataleko informazioak jasoten dira. Euskera hutsean dago eta udal iturrien arabera, urtean lau zenbaki aterateko asmoa daukie, urte sasoi bakotzeko bat.

ARRATIA

Drogen erabileraren arriskuak murrizteko tailerraErredakzioa

Arratiako Udalen Mankomunidadeak eta Gaztedi Bizkaia, aisialdian edo osasun arloan gazteak behar egiten daben gizarte eragileentzako trebakuntza tailerra antolatu dabe zemendiaren 19rako. Tailerra Ailaket alkarteak emongo dau, Igorreko Kultur Etxeko liburutegian, 10:00etatik 14:00etara.

Helburu nagusia gazteak esku hartzen daben profesionalen trebakuntzearen bitartez gazteen babes faktoreak sustatzea eta egoera ahulean dagozan gazteen droga konsumoari lotutako arrisku faktoreen eragina murriztea da.

Izena, Arratiako Udalen Manko-

munidadera deituta edo prebentzioa.arratia@bizkaia.org helbidera idatzita emon daiteke.



ARRATIA

Dima UEMAn sartu dala ospatuko dabe Euskerearen EguneanErredakzioa

Euskerearen Nazinoarteko Eguna abenduaren 3an da eta Arratia osoan hasi dira eguna ospatuteko motorrak berotuten. Lehenengo ekitaldia Igorren izango da, zemendiaren 30ean, "Euskeraz bizi nahi dut" film laburren emonaldia, hain zuzen be. Abenduaren 2an, Arantzazun txotxongilo ikuskizuna; Lemoan Euskeraz Dantzatu, Abestu, Musika jo, Gozatu, bizi

gura dot, kale animazinoa; eta umeentzako ekitaldiak Arteako eskolan eta tailerrak Bediako ludotekan egongo dira. Zeanurin, Ipuin kontalaria eta Esti eta Olatzen kontzertua egongo dira Euskerearen Egunaren bezperan.

Diman, herria UEMAn, Udalerrri Euskaldunen Mankomunidadean sartu dala ospatuko dabe abenduaren 3an. UDIME Eguna deitu deusie, Dima "Udalerrri Dimeslari Irudimentsu Maite eta Euskaldu-

na izatea gura dogulako" azaldu deutso BEGITURI Ibon Iza zinegotziak. Horretarako zemendian sensibilizazio kanpaina bat abiatu dabe. "Ekarri doguz panel batzuk, zer dan amasgunea, zelango balioa daukan eta gero ezagutza mailatik erabilerara egin behar dogun pausua azalduetako. Izan be, ezagutzea aurrera doa baina ezagutzeak ez dau erabilera ziurtatzen" dino Izak. Zemendiaren 18an tailer bat egingo dabe eskolan, ume eta gurasoak hizkuntzaren transmisioaren inguruan.

Ezagutza aldetik udalerrri euskalduna da Dima eta euskerea mantendu eta zabaltzeko ardura berezia daukiela dino. Euskerearen normalizazioan motore lanak egiteko UEMAn sartu ziran eta hori ospatuko dabe kantu, jantza, kirol eta erromeria baten bidez.

Euskeraren Eguneko programazio osoa BEGITUKO hurrengo zenbakian jasoko da.



ARRATIA

Andrakanako indarkeriaren kontrako ekintza ugari Arratian



Igazko Beldur Barik Arratia Lehiaketako sari banaketako irudia.

"Kokoteraino gaude, ez hemen ez inon" lemapean batu dabez Arratian, Andrakanako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunaren inguruko ekitaldiak, Arratiako andra taldeak, talde feministak, Mankomunidadeak eta Udalak.

Erredakzioa

Aurten, konzentrazio eta Martxa Morearen orde, manifestazioa egingo dabe zemendiaren 25ean Igorren.

Manifestazioa arrastiko 19:00etan izango da, eta oso "bisuala" izatea gura dabe antolatzaileak. "Atzenengo urteotan, jente gitxiagok hartu dau parte Martxa Morean, eta konzentrazioa eta martxea manifestazio baten batzea proposatu zan. Asmoa, Igorretik ibilbide bat egitea da, oso bisuala, jenteak ikusi dagian zer aldarrikatzen dan" azaldu deutso BEGITURI Xabier Pastor Arratiako Udalen Mankomunitateko (AUM) Berdintasun Teknikariak.

Sensibilizazio ekintzak ia hile osoa hartuko dabe eta herri guztietan izango dira. Indarkeria prebeniduteko helburua daukan gazteai zuzendutako Beldur Barik programako ekintza bi izan dira lehenengoak. Holan, neskenetako autodefensa tailerra eta Lip Dub tailerraren lehenengo saioa egin dabez aurreko hamabostaldian. Zemendiaren 18an izango da Lip Dub tailerraren bigarren saioa Diman. Izan be Diman grabauko dabe hilaren 25ean Lip Dub-a, eta bigarren saioa grabaketea egingo dan lekuan egingo dabe ensaio moduan.

Edade guztietakoai zuzendutako tailerrak be egongo dira gure eskualdean. Esate baterako, zemendiaren 21ean, Lemoako Udalak antolatuta, Miriam Herbornen eskutik, "25N construyamos relaciones de buen amor", ordu

biko tailerra egongo da Lemoako Jubiladuen etxeko goiko aretoan 18:30ean. Hilaren 23an, matxismo isilen inguruko tailerra eskeiniko dau Noka taldeak Igorreko Kiñu Gaztetxean 19:00etan. Bertan parte hartzean dabenak eguneroko jarkera matxistak identifikatu eta aurre egiten ikasiko dabe. Azkenik, abenduaren 2an, "Cuidar cuidándonos" tailerra emongo dau zaintza eta feminismoan aditua dan Conchi Lopezek Arteako kulturgunean 18:00etan.

Ipuin kontalaria egongo da hilaren 18an Arantzazuko Kulturgunean, *Emakumeak = kontatzen*. Umeai zuzendutako bardintasuna sustatzen daben ipuinak kontauko ditu Apika taldeak 18:00etan.

Areatzan, zemendiaren 27an, 11:00etatik 15:00etara *Gogoratzan nauzuenetan* liburuaren irakurketa publikoa egingo dabe udaletxeko plazan. Indarkeria matxistaren kontrako ipuin bilduma honetan, Areatzako Maite Artaberen "Oi Zorion!" ipuina dago.

Zeanurin eta Arantzazun bideo-forumak antolatu ditue. Zemendiaren 29an eta abenduaren 2an izango dira hurrengo hurrengo. Zeanurin, *Mama duérmete que yo vigilo* dokumentala ikusteko aukerea egongo da 17:30ean. Umeak askotan andrakanako indarkeriaren biktimak be izaten dira eta gai hori landuten dau dokumentalak. Arantzazun *La vida empieza hoy* eskeiniko dabe 17:30ean Kulturgunean abenduaren 2an.

Antzerkia be indarkeria matxista prebeniduteko egokitzat jo dabe

Lemoan eta Bedian. Hori dala eta, zemendiaren 24an, lau urte-tik gorako umeentzako antzerkia egongo da Lemoako ludotekan arrastiko seiretan. Zemendiaren 27an, barriz, nagusientzako Bediaiako plazan. *Bi ero diskotekan* antzertuko dau tiferencia taldeak eguerdiko 12:30ean.

Zeberion, berbaldia antolatu dabe hilaren 18rako; Ermita Zaharrean 18:00etan izango da. Ondoren, 20:00ak aldera, Beldur Barik Lehiaketan aurreko edizinoetan aurkeztutako 27 minutuko bideo aukeraketa bat eta Zubialde eskolan egindako bideoa ikusi ahal izango dira. Hilaren 26an, Urdulizen egingo dan Beldur Barik topaketara joateko autobusa be ipiniko dau Zeberioiko Bardin-tasun zerbitzuak. Izena hilaren 10 eta 22 artean emon behar da.

Zemendiak 25

Eguneko ekitaldirik garrantzitsuena, Igorren egingo dan manifestazio bateratua izango da duda barik. Bertan, Arratia eta Zeberioko herritarrak batuko dira, "Kokoteraino gaude, ez hemen ez inon" lemapean, andrakanako indarkeria ez dala onargarria eta indarkeria sexisteagaz amaituteko gogo sendoa erakusteko. Ez da aukera bakarria izango. Arantzazun barbarako, alkarretaratzea egingo dabe eguerdiko 12:00etan, udaletxe aurrean.

Diman Beldur Barik Arratia Lehiaketako sari banaketea egongo da. Horren aurretik, 12 eta 26 urte bitarteko gazteak, Lip Dub-a grabauko dabe 17:00etatik 17:30era, eta ondoren, Arratia mailako Beldur Barik Lehiaketara aurkeztutako ikusentzunezko onenak saria jasoko dabe horretarako antolatutako ekitaldian.

Goizean, Igorren eskolako umeai zuzenduta, *Peter Punk* umorezko ikuskizuna eskeiniko da Lasarte Aretoan.

DIMA

Beste lau auzo batzar 2017ko aurrekontuetarako ekarpenak egiteko

Erredakzioa

Batzarrak auzokoakaz, gizarte eragile eta alkarteakaz egingo dabez udal ordezkariak eta herriko taberna, ludoteka eta beste leku batzuetan buzoiak ipiniko dabez Diman 2017ko aurrekontuetarako herritarrak ekarpenak egin dagiezan. Batzarrotan udal ordezkariak udal jardurearen barri eta diru kontuen azalpenak be emongo dabez.

Zemendiaren lehenengo hamabostaldian, udalekoak Artaun, Bikarregi, Lamindao, Indusi eta Ziarrustan izan ziran inguruko herritarren eretxiak eta ekarpenak jasoten. Beste lau batzar dagoz deituta auzoetan.

Zemendiaren 18an Olazabalgo ermitan, Munetxa, Artzubigane eta Olazabalgo auzokoakaz batuko dira arrastiko 18:00etan. Hurrengo egunean, goizeko 10:30ean, Obako txokoan izango da batzarra eta batzar honetara Atutxa, Emaldi, Barrandi eta Obakoak dagoz deituta. Egun horretan bertan, zemendiak 19,

eguerdiko 12:00etan, Ugaranan, udaletxean, Zubimakurre, Landaburu, Elexondo, Ugarana, Telleri, Erremerteriondo, Bengoetxe eta Ibarako biztanleak egin daikiez euren ekarpenak.

Hamabostaldi honetako hirugarren auzo batzarra, hilaren 20an goizeko 10:30ean izango da San Balentin ermitan. San Balentin, Santiago, Jandoneko-be, Artabe, Elexatzu, Olakoetxe, Leitoki, Errotazar, Elexpe, Bargaun eta Egiraunekoentzat da deialdia. Azken auzo batzarra, hilaren 26an, 10:30ean Bargondiako ermitan izango da. Bertan, Azmendi, Mugaratz, Bargondia eta Baltzolakoak batuko dira.

Diru gitxiago

Bizkaiko Foru Aldunditik zergen bilketatik datorren dirua % 3,3 jeitsi da eta ondorioz, aurrekontua % 2,5 jeitsiko dala azaldu deutso BEGITURI Nekane Intxaurtza Dimako alkateak. Bere esanetan, jaitsitakoa gastu korrontetik aurreztuko da eta diru laguntzetan eta inbersinoetan ez dau eraginik izango.



AREATZA

Droga konsumoaren diagnostikoa egiten hasi da Areatzako Udala

Erredakzioa

Urrietan hasi zan Ortzadar enpresa Areatzako droga konsumoaren diagnostikoa egiten. Gazteai zuzenduta badago be, ez dau bakarrik gazteen konsumoaren barri jasoten, edadekoena be jasoten dau.

Areatzako Udalaren aspaldiko kezka zala hori dino Maitane Diez zinegotziak. Eta interbenzinorik behar dan ala ez jakiteko, lehenengotik diagnostiko bat behar zan. Proiektua Ortzadar enpresei esleitu jakon eta urri lehenengoan

ekin eutsien lanari.

Informazioa jasoteko inkestak egiten dabez Institutuan eta telefono bidez; bilerak alkarte eta eragileak, eta abar.

Urte amaierarako, diagnostikoa eginda izatea eta emoitak jentaurrean aurkeztea espero dau Diezek. Ateraten diran emoitakaz, 2017a begira plan bat egingo dabe. "Pentsetan dot mito bat apurtuko dala. Areatzan Arratiako beste lekuetan baino gehiago konsumiduten danaren idea dago, diagnostikoak esango dau ea hori holan dan ala ez".

GURE ESKU DAGO

Jaume Lopez: "Erabakitze eskubideak politikan paradigma aldaketeta dakar"

Demokraziak ez daukala mugarik, erabakitze eskubideak herritarren ahalduntzea dakarrela, herritarrai eragiten deuseen gauza guztien gaineko erabakitze eskubidea daukiela eta marko politikoa be herritarrek ebatzi behar dabela azaldu eben Iñaki Antiguedadek, Jaume Lopezek eta Juan Jose Ibarretxek Diman, Alkarregaz Gure Esku Dagok antolatutako ekitaldian.

Erredakzioa

"Herri galdeketa, erabakitze eskubidea gauzatzea" titulupean, hiru hizlariak ados egon ziran, erabakitze eskubidea gauzatzea demokrazian sakontzea dala eta kalidazeko demokrazia baten, herritarrek euren etorkizuna aukeratzeko eskubidea daukiela. Eta hau, hasi baino ez dan prozesu bat dala, paradigma aldaketeta dakarrena.

Iñaki Antiguedadek, EHUko Hidrogeologia katedradun eta ezker abertzalean ibilbide politiko handidunak, beste hizlari biak aurkeztu eta moderatzaile lanak egin ebazan. Bere ustez, "subirautzarik ez daukan gizarte bat, subiraua dan beste baten menpe egongo da beti" eta horregaitik erabakitze eskubidea gauzatu behar da. Gizarte zibiletik sortzean da subirautza, eta hortik eratorritakoa gizarte politikoak

Hilaren 27an izango da
Diman herri galdeketea



Indarkeria matxisteagaz amaitu
herriak
bizirik
gura gaitu!

ARTEAKO UDALA

kudeatzen dau. "Eztabaidea ez da ezagutzen ez dogun independentziaren gainekoa, ezagutzen dogun eta gura ez dogun dependentziaren gainekoa baino".

Katalunian ez bezala, Euskal Herrian erabakitze eskubidearen gaineko pentsamentu intelektuala botaten dauala faltan esan eban Antiguedadek.

Mundu globalizatuan, erantzun lokala bide bakarra

Juan Jose Ibarretxe, 1999 eta 2009 bitartean Euskal Gobernuko Lehendakaria izan zana, gizarte zibilean dabil orain "gauza asko egiten". Ibarretxe, Agirre Lehendakaria Center-eko (ALC) zuzendaria da. Zentro hau, gizarte zientzien esparruan kokatzen da, EHUri lotuta dago eta beste herrialde batzuetako unibersidadeak garatutako kolaborazio

Osasuneko Herri Eskolakoak

Gure
ikastetxeak

Euskalduna
kalidazekoak
herrikoia

JB Eguzkiza Meabe HI Tel.: 94 631 32 28 Lemoa	Ikastola Arratia HI Tel.: 94 673 90 65 Artea
Ugarana HI Tel.: 94 631 55 32 Dima	Arratia BHI Tel.: 94 673 62 37 Igorre
Zubialde HI Tel.: 94 648 06 82 Zeberio	Areatzako Herri Eskola Tel.: 94 673 90 93 Areatza
Zeanuri HI Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri	I. Zubizarreta HLHI Tel.: 94 673 60 22 Igorre

2 urteko 18a

proiektua da.

Perspektibea ez galtzeako, munduari begiratu behar jakola esan eban Ibarretzek. Munduari begiratu, Euskadi ikusteko. Izan be, gizarte globalizau honetan, erantzun lokala da bide bakarra.

Identitatea eta kultura ezinbestekoak josten ditu Ibarretzek giza garapen iraunkorra lortzeako. I + G + B (ikerketa, garapena eta barrikuntza) polinomioari, norberaren kulturea, K gehitu behar jako funtzionauko badau, I + G + B + K. Baina datu kezagarri bat be emon eban: Stanford unibersidadearen arabera, gaur egun 5.000 hizkuntza inguru dagoz munduan, atzenengo 50 urteetan 1.000 hizkuntza galdu dira, eta XXI. mendearen amaieran, 500 inguru geratuko dira.

Hori bai, gero eta herrialde gehiago dagoz munduan. Horreetako asko, txikiak bezain indartsuak. Holan, Nazino Batuen Erakundearen 1945ean sortu zanean, 45 herrialde egozan; gaur egun ea 200. Europari jagokonean be, 1914an 20 estatu ziran, 1949an 26 eta 2014an 47. 2030ean, Eskozia, Flandes, Katalunia eta Euskal Herria be NBEn egongo diran esperantzea agertu eban Ibarretzek.

La Hayako Auzitegi Gorenaren Kosovoren gaineko 2010eko Ebatzia be aitatu eban Lehendakariak. Horren arabera, "modu demokratikoan adierazotako herriaren borandateak ez dau Na-

zinoarteko Zuzenbidea urratzen".

Paradigma politikoaren aldaketea

Pompeu Fabra Unibersidadeko Zientzia Politika irakaslea da Jaume Lopez eta Kataluniako prozesu politikoa eta honek ekarritako paradigma politikoaren aldaketea azaldu eban Diman.

Kataluniako esperientziak printzipio demokratikoaren garrantzia erakusten dauala esan eban. Erabakitze eskubidea aldarrikapen demokratikoa da; izan be, "geure etorkizun politikoa erabaki gura dogu". Lopezen arabera, demokraziak ez dauka mugarik, ez dago erabaki ezin dan gauzarik eta Katalunian estatutu markoa ebatzi gura dabe.

"2005ean erabakitzeko eskubidearen aldeko plataformea sortu zan. 2006an, diputaduen % 80k estatutua onartu eben baina ez zala kontuan izango ikusi genduan, aldatu egingo ebela. Orduan kalera urten ginan lehenengoz, erabakitze eskubidea daukan nazino bat garala aldarrikatuz. Ez genduan espero hainbeste jente urtetea. Hor hasi zan dana: printzipio demokratikoa eta herritarren ahalduntzea aldarrikatzean" esan eban Lopezek.

Estatutuaren sententzia ospetsuaren ostean, erakundeak eta herritarrak kalera urten ziran, "nazino bat gara eta erabaki gura dogu" lemapean. Hortik aurrera herritarren ahalduntze zeharkako mobimentu bat hasi zan".

Gero 5 konsulta bolada etorri ziran, bertan 800.000 persona inguruk hartu eben parte. Herritarren artetik sortutako plataformea erakundeetara heldu zan eta erabakitze eskubidea Legebiltzarrean defendidu. Orain, Subirautza eta Erabakitze Eskubidearen gaineko Adierazpena daukie.

Egindako bidea behetik gorakoa dala esan eban Lopezek, eta iraultza demokratikoa eta herritarren ahalduntzea ekarri dauala. Katalunian erabakitze eskubidea ulertzeko modu barria sortu da. "Demokrazia garapen prozesu bat da eta herritarren eskubideak zabaltzen joan dira" eta marko politikoa be, erabaki demokratikoaren ondorioa izan behar da. "Gaur egun ezin dogu

demokratikotzat hartu estatu bat, estatu horretako zati batek ezin badau erabaki estatu horren gainean". Eta "estatu bat ezin bada sortu herritarren borondateagaitik, esaten dabizena da estatuak bakarrik sortu daitezkezala indarkeriaren bitartez".

Lopezen arabera, XXI. mendean, autodeterminazio printzipioak komunitade batek bere etorkizuna ebatzi ahal dauala esan gura dau, estatu bat sortzea barne. Bere ustez, erabakitze eskubidea gero eta gitxiago egongo da lotuta printzipio nazional bateri. Hau da, estatu bat sortu ahal izango dabe herri edo nazino ez diran komunitadeak. "Komunitade politiko batek erabakitzeko eskubidea dauka eta

estatu independente bat sortu leike. Gero eta gehiago ulertuko da estaduen mapea herritarren borondate politikoen frutu dala" esan eban.

Zemendiaren 27an herri galdeketea

Hilaren 27an izango da herri galdeketea. Egun horretan dimoztarrak itaun honeri erantzungo deusie: "Euskal Estatu burujabe bateko herritar izan gura dozu?" Erantzuteko hiru aukera dagoz: Bai, Ez edo zuriz itxi. Hamasei urtetik gorakoak emon ahal dabe botoa. Hautetsontzia eleizarako bidean dagoan Alkarregaz GEDko lokalean egongo da. Botoa alde zurretik be emon daiteke, hilaren 17an eta 24an, GEDko lokalean.



Jente asko hurbildu zan berbaldira.



Sartu gure Facebook-eko orrian:

www.facebook.com/galanta.lenceria

Udagoien honetan guaparik joateko tizu Galantara!

946 319 008
658 195 031

www.facebook.com/galanta.lenceria

Agirre Lehendakaria 23
48.140 Igorre
galanta@hotmail.es

GALANTA
zure barruko arropa

M. JOSE
barrutik janzen zaitu



FUTBOLA

Gizonak lider

Ainhoa Duñabeitia

Arratia taldeko andrak 3 eta 0 galdu eban hilaren 13an Añorga taldearen kontra jokaturako partidua. Aurreko partidua ostera 2-1 irabazi eban Ardoi taldearen kontra etxean. Arratia saillapenaren atzekaldean dago 9 puntugaz 10 jardunaldi jokatu eta gero. Hurrengo partidua, lehen postuan dagoan Logroñoren kontra jokaturako dau hilaren 20an Igorren.

Gizonezkoak ostera 3 puntu garrantzitsu lortu ebezan zemendiaren 13an jokaturako neurketan. Busturia izan eban aurrez aurre eta arratiarren gol bateri esker etxera ekarri ebezan puntuak. Aurreko partidua bana bardindu eban Uritarra taldearen kontra. Orain lidertzan dagoz 19 puntugaz. Hurrengo norgehiagokea etxean jokaturako dabe Baskonia B taldearen kontra.

Lurraldeko Bigarren Mailan jokatzen dauan Arratia B taldeari jagokonean bina bardindu eban Urbietan Artibai talde liderraren kontra hilaren 12an jokaturako partiduan. Zazpi jardunaldi eta gero taularen erdikaldean dago Arratia B.

LASTO BOTATZE

Tubi Euskadiko Lasto Botatze txapelduna

Erredakzioa

Zemendiaren 12an jokatu zan Laukizen Euskadiko Lasto Botatze Txapelketea. Sorpresarik ez zan egon eta Jose Martin Bustinza "Tubi" dimoztarrak irabazi eban txapela, 6 metro eta 40 cm.ko markea eginda.

Errez irabazi eban arratiarrak. Bigarrena Lapurdiko Andde Arbenoitz izan zan, 5 metro eta 90 zen-

timetroko markeagaz. Hirugarren laugarren eta bosgarren, Arabako kirolariak: Sergio Aldasoro, Juan Carlos Lopez eta Carlos Ruiz de Aretxabaleta.

Arratiarra sasoi betean dago eta alde handia ateratzen deutse aurkariari. Txapeldunak kirol honetan partaidetzea ez dala handia dino. Txapelketan "ondo ikusi neban neure burua, baina partaidetzea ez zan beste mundukoa, bost persona".



Laukizen parte hartu eban bost kirolariak

ZIKLO-KROSA

Manu Quintanilla oso ondo

Erredakzioa

Master 40 bere kategoriako podiumera igo zan Manu Quintanilla Igorrekoa Legazpin (Gipuzkoa) zemendiaren 1ean eta Karrantzan (Bizkaia) hilaren 6an jokaturako probetan, bigarren eta hirugarren eginda, hurrengo hurrengo.

Zemendiaren 12an, Arbuluko V. Sarian, lehenengo hamarren artean egon zan arratiarrak Master 30eko kategorian eta Kadeteetan. Master 30ean, Fisik Mediolanum taldeko Jon Aingeru Artetek zazpigarren egin eban. Murias-Arratia taldeko Joseba Torresek, barriz, zortzigarren egin eban Kadeteetan.

Igorreko Ziklo-krosa

Abenduaren 11n izango da Olabarriko zirkuituan jokatzen dan Igorreko Ziklo-krosa. Aurten 40 urte beteten dauz probeak eta betiko moduan ziklo-kroslari onenak neurtuko dira.

ERRUGBIA

Zekorrek taularen erdikaldean

Ainhoa Duñabeitia

Zekorrek 5 partidu jokatu dabez eta horreetatik bi irabazi egin dabez. Saillapeneko taularen erdian dagoz, 6. postuan hain zuzen be.

Hilaren bigarren astegoienean Amurrio izan eban aurkari arratiarrak. Etxetik

kanpo jokatu eban norgehiagokea eta ezin izan eban garaipena etxera ekarri. Partidua amaitzeko egoala zigor kolpe baten ondorioz neurketea galdu eban arratiarrak. Azken emoitzea: Amurrio 22 Arratiko Zekorrek 20.

Hurrengo neurketea etxean izango dabe, hilaren 26an, Funesen aurka.

2017KO UDAZKENEKO ESKAINTZAK

BADUZU EDUKI BEHAR DENA?

MOTZERRA 139€

PUTZGAILU 139€

UR PRESIO BIDEZ GARBITZEKO MAKINAK 139€

STIHL®

*Eskaintzak 2016ko abenduaren 24ra arte. Liburuxkaren 2 orrialdean ikus dezakezu modelo hauen prezioak.

GARAJE FELIPE
garajefelipe.stihl-tienda.es

 **Denda birtuala**

Barrio Montorra,
Bº1º - Amorebieta
946 309 039

Garbe, 2
Igorre
946 736 339

KIROL ASTEA

Kirol eskeintza zabala Lemoako Kirol Astean



Lemoatxera igongo dira birritan Lemoatx Traileko lasterkariak.

Erredakzioa

Zemendiaren 14tik 20ra, Udalak eta herriko kirol alkarteak Kirol Astea antolatu dabe Lemoan. Aste horretan, gurean asko praktikatzen diran mendia, pelotea, txirindularitza edo herri kirolak batera, Nordic Walking edo Hapkido moduko kirolak ezetuteko aukera egongo da. Kirolen gaineko berbaldiak, bideo-emonaldiak,

erakustaldiak, txapelketak eta bertsoak eta pelotea buztarzen dauden ekintza batek osotuko dabe egitaraua. Eskolan, umeak mendia urtekerak, pelota partiduak eta herri kirolak praktikatuko aukera izango dabe.

Zemendiaren 19an Lemoatx Trail mendia martxea eta mendia lasterketea izango da. Ibilbideak 16,5 km. izango ditu eta 800 m.ko desnibela. Partaideak Lemoatxera

birritan leku desbardinatetik igoko dira eta 1936ko gerrako lubakiak ikusteko aukera izango dabe. Parte hartzeako izen emote bakoitzeko euro bat, Hegoak Astinduz erakundearentzat izango da. Hegoak Astinduz alkarteak "time-letaren azala" moduan ezetuten dan gaisotasunaren barri emoten eta jentea sensibilizetan egiten dau behar.

Zemendiak 14, astelehena
19:00etan, "Basamortua eskuza-bal" berbaldea eta bideo emonaldia. Jubilduen Etxeko aretoan.

Zemendiak 15, martitzena
10:00etan, jubiladuentzako Nordic Walking ikastaroa kiroldegian.

Zemendiak 18, barikua
19:00etan berbaldea, "Garai desbardinatetako txirindularitza" Kulturgunean.

19:00etan, Hapkido defentsa personala kiroldegian.
20:00etan, bertso-pelotea frontoian.

Zemendiak 19, zapatua

Lemoatx Trail eskolako aterpetik abiatuta. 09:00etan mendia mar-txea; 10:30ean, mendia lasterketea. 17:00etan, Zunba maratoia kiroldegian.

Zemendiak 20, domekea

Goizean Ganzabal Mendia taldearen urtekerak. Estibalitz-Legutia. 13:00etan, herri kirol erakustaldia eta herritarren arteko Ingude Txapelketea Elizondon.

MENDI LASTERKETAK

Jokin Zabala, etorkizun handiko bediaztarra, kilometro bertikalean



Jokin Zabala Anbotoko kilometro bertikalean.

Erredakzioa

Jokin Zabala Zamalloa Bediakoak, kilometro bertikalen lasterketa tenporada biribila egin dau. Izan be, Espainiako Kopan, Promesa Mailan bigarren egin eban; baita Euskal Herriko kilometro bertikalen Txapelketan eta Euskal Herriko Kopan eta Espainiakoan. Euskal Herriko Kopako sailkapen orokorrean, hamargarren amaitu dau 23 urteko lasterketariak.

Maiatzean hasi ziran kopa biak,

Espainiako eta Euskal Herriko, eta bietan parte hartu eta postu onak lortu ditu arratiarrak.

Espainiako Kopan, Otañeseko kilometro bertikalean Promesa mailako hirugarrena izan zan; baita Madrileko Cercedillakoan eta Lleidako Cavdellakoan. Bartzelonako Sitja del Llob-eko kilometro bertikalean parte hartu eban, Promesa mailako lehenengoa izanik, eta sailkapen orokorrean bigarren postua lortu eban.

Euskal Herriko kilometro bertikalen Kopan, Defi de la Rhunen Promesa Mailako bigarrena izan zan; Azkoitiko Zuzenien kilometro bertikalean, lehenengoa; Anbotokoan, hirugarren Promesa, eta Araia Aratzeko kilometro bertikalean bigarrena. Kopan bigarren egin eban Promesa mailan, eta sailkapen orokorrean hamargarren.

Euskal Herriko Kilometro Bertikalen Txapelketea Uhartea Arakileko Sandonatoko kilometro bertikalean jokatu zan eta bertan bigarren Promesa legez sailkatu zan.

Espainiako Kilometro Bertikalen Txapelketan, barriz, hamargarren Promesa legez.

Etorkizunari begira

Urte osoko lanak frutuak emon deusaz Zabalarri. Orain, denporaldia amaituta, eta deskantsua hartu ondoren, Zabala hasi da barriro entrenetan. "Helburu bi daukadaz. Bata Cabraleseko kilometro bertikalean parte hartutea da; eta bestea, aurtengo moduan, Euskal Herriko Kopan lehenengo hamarren artean egotea, eta Espainiakoan lehenengo hogeien artean" azaldu deus BEGITURI Bediako mendia lasterketariak.

Datorren urtean Zabala ez da promesa mailan egongo.

ARTEAKO

Azaro / Musikala

4 BARIKUA
19:00etan
ARTEAKO LUDOTEKAN
ROSA MARTINEZek aurkeztuko du HALA BAZAN
TXOTXONGILOAK

5 ZAPATUA
21:30etan
"ARTEA" TABERNAN
ROCK KONTZERTUA
FOUR FRIENDS TALDEA

12 ZAPATUA
21:30etan
EKO-MUSEOAN
ROCK KONTZERTUA
MOONSHINE WAGON

18 BARIKUA
15:15etan
ARTEAKO ESKOLAN
ARTEAKO ESKOLAN MUSIKALDIA
ERE BAI! JARDUNALDI IREKIAK.
19:30etan
SAN MIGUELEKO ELIZAN
LUIS IRAURRIZAGA KORALA,
ARRATIARTEKO MUSIKA ESKOLA
eta ARTEAKO UMEAK

19 ZAPATUA
21:30etan
ARTEAKO HERRIKO BENTAN
EUSKAL KANTAUTOREA
MIKEL INUNZIAGA

22 MARTITZENA
18:00etan
Arratiako Musika Eskola
KALEJIRA
Herrian zehar
(Batzoki-Plaza-eko Museo)
JARRAIAN TXOKOLATADA

25 BARIKUA
20:00etan
SAN MIGUEL ELIZAN
JAZZ-BLUES-SOUL
KONTZERTUA
BILBO MUSIKA ESKOLAKO
AHOTS KONBOA
21:00etan
BATZOKIAN
ROCK KONTZERTUA

ARTEAKO MUSIKA ESKOLA | ARTEAKO GURAZO ELIZARTEA | ARTEAKO ESKOLA PUBLIKOA | ARTEAKO UGALA | EKO-MUSEO | TABERNA "ARTEA" | ARTEAKO BATZOKIA | ARTEAKO HERRIKO TABERNA

LIBURUA

**Juan Manuel Etxebarriaren
Gorbeia inguruko etno-ipuin eta
esaundak II liburuaren aurkezpena****Erredakzioa**

Lehenengo *Gorbeia inguruko etno-ipuin eta esaundak* liburuan jaso barik geratu ziranak, eta harrezkerotik jaso dituanak batzean dauz Juan Manuel Etxebarria filologo ze-

berioztarrak bigarren liburu honetan. Liburu mardula 788 orrialdekoa.

Irakasleak, Deustuko Unibersidadean aurkeztuko dau liburuaren zehazkiaren 14an goizeko 10:30ean, eta hilaren 17an, arrastiko 19:00etan, Zeberioako udaletxean.



ROKUPA FEST

Rokupa hilaren 19an Igorren**Erredakzioa**

Kiñu Gaztetxeak III. Rokupa Fest jaialdia antolatu dau, Gaztetxea okupau ebela hiru urte beteten dira-eta. Bertso bazkaria 14:30ean izango da Gaztetxean; paellea eta eskalopea, begetariano, alergiko eta abarrek

eizukinu@gmail.com-era mezua bialdu behar dabe. Bazkari ostean Karrojira eta Tremebunda serigrafia egongo dira. Gauean, 22:00etatik aurrera kontzertuak lau tabernatan. Herrikoan, Moonshakers; Kukumán, Holynus; Errugbin, Nx eta Trokan AK dja.

ZEZILI DEUNA

**Kontzertuak eta
kalejirak gurean****Erredakzioa**

Zemendiaren 22an, Santa Zezilia edo Zezili Deuna, musikearen patriaren eguna ospatuten da eta egun horren inguruan Arratiako Musika Eskolako abesbatzak, bandak eta musikariak kontzertuak eskeini eta musikea aterako dabe kalera.

Arteak zemendi osorako antolatu dauz kontzertuak eta musika ekitaldiak. Zemendiaren 18an izango da Luis Iruarizaga Abesbatza, Arratiako Musika Eskolako Kirikinus Korua eta Arteako esko-

lako umeen kontzertua San Migel eleizan, arrastiko 19:30ean. Horren aurretik, 15:15ean, eskolan, musika jardunaldi irekiak egingo ditue, eskolearen bitartez herri-tarrai musikarako grina biztuteko asmoz. Hurrengo Egunean, Mikel Inuntziaga "Inun" kantautorearen kontzertua egongo da Herriko Bantan. Zemendiaren 25ean kontzertu bi egongo dira. Zortziretan, Bilboko Musika Eskolako Abots Konboak San Migel eleizan, eta 21:00etan, Sonic Free Station, soul, blues eta rock taldeak Batzokian, kontzertua emongo dabe.

Igorren be Luis Iruarizaga Abesbatzak, Arratiako Musika Eskolako ikasleak eta Igorreko ludotekako umeak Santa Zeziliako kontzertua eskeini dabe hilaren 19an, arrastiko zazpiretan Lasarte Aretoan.

**Areatzan Bandea eta Zeanurin
kalejirak**

Areatzako Udalak, Kultur Kirol Batzordeak, Bandak eta Hala Dzipo Herri Musika eskoleak hiru kontzertu antolatu ditue. Lehenengo biak Udal Aretoan. SolyDo biola laukoteak hilaren 20an 18:30ean joko dau, eta 25ean, "Herriaren purrusaldea" ikuskizuna egongo da 19:00etan. Hurrengo egunean, hilak 26, Areatzako Bandea kontzertua eskeiniko dau eleizan.

Zeanurin be, hiru musika ekitaldi egongo dira. Lehenengo, Pablo Fernandez jazz kontzertua izango da, hilaren 18an, 20:30ean, frontoiko tabernan. 22an, barriz, 18:00etan, herriko hiru zubietatik kalejira ibiliko dira herriko trikitalari, txistulari eta abeslariak. Hilaren 19an, Santa Zezilia eguneko kantak abestuko dabez.

KONTZERTUA

**Pablo Fernandez
gitarrajoleak
jazz kontzertua
eskeiniko dau
Zeanurin****Erredakzioa**

Zemendiaren 18an, frontoiko tabernan jazz kontzertua emongo dau Pablo Fernandez Arrieta gitarrajoleak. Beragaz, Arturo Valero kontrabajoa

joten eta Cesar Frias bateriajolea egongo dira. Urte asko Euskal Herri-tik kanpo bizi izan ostean, gaur egun Markinan bizi da eta Zeanurin emoten dau gitara eskolak Fernandezek.

Gitarrajole, moldatzaile eta musikagilea da Pablo Fernandez. Bostongo Berklee College of Music-ean graduatu zan eta New York-eko Queens Collegeen jazz masterra egin eban. Hori dala eta, euskal kantuak jazzera moldatzen ditu. "Jazz musikaria naz baina umetatik bihotzean daroan musikea Ez dok Amairu, Mikel Laboa eta hori da. Horri buelta bat emotea gura deusat" azaldu deutso Fernan-

dezek BEGURI. Igelaren Bandako partaide dan Asier Oleagaz be jo izan dau Fernandez Arrietak.

Hiru disko ditu kalean, *D'aqui para la Nana* Vasconcelos perkusionisteagaz batera, *O amor* eta *Standards*.

Esperimentazio zalea

Euskal kantak ez bakarrik jazz-agaz, flamenkoagaz be nahastuten dauz musikariak. "Flamenkoa asko gustetan jata eta nire flamenko irakaslea izan zanagaz proiektu bat daukat. Gauza bera egiten dogu. Gitara elektrikoa eta flamenkoa nahastu".

MERKA LABELA-HARATEGIA

Etxeko produktioak

- Trerizotak
- Odoletzak
- Baskantzak
- Saltribiak
- Rimburesak

Arratiako produktioak

- Baserriak
- Urbiak
- Baserri arnaitzak
- Zurrak
- Harriak
- Geroa frota eta barakak

Herrikoak lekuak
Lehendakari Agirre, 19
48140 Igortea
94.631.52.26

Beer & Edariak s.l.

HEINEKEN SOLARES

Felipe Mendizola, s/n. 48530 LEZMOA, BIZKAIA
Tel: 090 480 8300 / 94 631 52 26

NAIARA HORTZ KLINIKA

Lehendakari Agirre, 19
48140 Igortea
94.631.52.26

AurREkontu parte hartzaileak 2017

Zelango herria gura dozu?

Zelango eraikin publikoak gura dozuz?

Zer botaten dozu faltan Areatzan?

AREATZA ZEU ZARA

Azaroak 17 Eguena
Azpiegiturak, Toki Garapena eta Hirigintza
Karkabak, espaloiak, turismo plana, udal eraikinak...

Azaroak 23 Eguaztena
Kultura, Kirola eta Aisialdia
Kultura programazioa, jaiak, Gaztelekuak, Ludoteka...

Abenduak 1 Eguena
Batzar Orokorra

Abenduak 13 Martitzena
Zirriborroaren aurkezpena

Abenduak 22 diciembre Eguena
Udalbatza. Aurrekontuak aurkeztu

batzarrak 19:00etan udaletxean

Parte hartzeko beste bide batzuk: buzoiak (abenduren 4ra arte) eta e-maila (areatzapartehartzea@gmail.com). Gogoratu alkate edo zinegotziak alkartzeko aukerea daukazula be. Deitu udaletxera, utzi zure telefonoa eta hitzordua adostuko dogu.

Areatzako Udala Ayuntamiento de Areatza

BIZKAIKO BERTSOLARI TXAPELKETA

Arratiarrak ez dira sailkatu

Erredakzinoa

Iñaki Iturriotz Bizkaiko Bertsolari Txapelketan parte harzean dauan beste arratiarraren moduan, Igor Menikak be ez eban lortu finalurrekoetarako pasea Zaldibarren. Kanporaketea Nerea Ibarzabalek irabazi eban.

Finalurrekoetarako saio bakoitzeko irabazleaz gainera, beste 9 bertsolari sailkatu dira puntuazionaren arabera, baina Igor Menikaren 388,5 puntuak eta Iñaki Iturriotzen 385ak ez dira nahikoa izan hurrengo fasera pasetako.

Lehenengo finalurrekoa Mar-kinako Uni frontoian jokatu da

hilaren 19an, hurrengo 27an Basauriko Artunduaga kiroldegian eta atzena abenduaren 3an Larra-betzuko frontoian. Saioak arrastiko 17:30ean izango dira.



Nerea Ibarzabal bertsolari txapelketa irabazteko saioan, Igor Menika txaloka.

URTEURRENA

Karabie Gaztetxeak 17 urte

Erredakzinoa

Zemendiaren 26an, Karabie Gaztetxearen hamazazpigarren urteurrena ospatuko dabe Lemoako Harriketarrak Gazte Asanbladak, eta Karabie Gaztetxera hurreratzen diran guztiak.

Horretarako hainbat ekitaldi antolatu dabez. Goizean, gazteen arteko olinpiadak, bazkaria, karaokea eta dj-a egongo dira. Danak be lagunartean ondo pasetako jarduerak. Horrezaz gainera, hileroko-ileroko ikastaro laburrak antolatzen dabez harriketarrak.

ESKOLA AGENDEA

Eskolako agendaren bitartez, andrazkoen parte hartzea agirian

Erredakzinoa

Aurtengo eskolako agendak, Euskerearen Normalkuntza eta Hezikidetzaren batzean dauz, andren parte hartzea gizarteko esparru desbardinatzen hartu dau eta gaitzat. Hilero gai bat landuten da eta gai horri lotutako pertsonaje ezkutua topau behar dabe ikasleak, astero astero agendan agertuten diran pistakaz. Hile amaieran, agendan agertuten dan QR kode batez edo arratiakoandrazkoen blogspot.com blogean sartuta, jakin daiteke nor dan pertsonaje ezkutua eta berari buruz zeozer gehiago jakin pertsonajearen gaineko bideoa ikusita.

Ana Elejaga eta Puy Arrieta izan dira urrietako pertsonaje ezkutua. Hile honetan, agendako pistakaz, idazle baten eskizian dabil Arratiako Hezikuntza Komunitate osoa. Agendaren helburuetako bat

Euskerearen Normalkuntza eta Hezikidetzaren batzean dauz, andren parte hartzea gizarteko esparru desbardinatzen hartu dau eta gaitzat. Hilero gai bat landuten da eta gai horri lotutako pertsonaje ezkutua topau behar dabe ikasleak, astero astero agendan agertuten diran pistakaz. Hile amaieran, agendan agertuten dan QR kode batez edo arratiakoandrazkoen blogspot.com blogean sartuta, jakin daiteke nor dan pertsonaje ezkutua eta berari buruz zeozer gehiago jakin pertsonajearen gaineko bideoa ikusita.

Arratiako ikastetxeetako proiektua

Arratiako ikastetxeetako proiektua erabilera bultzatzen daben arduradunak sortutako proiektua da hau. Normalkuntza proiektuaren barruan, Arratiako ikastetxe guztiak kopartiduten daben ekin-tza, hain zuzen be.

Hile bakoitzeko gaiaren ardura ikastetxe batek hartzen dau, eta pistak diseinatu eta hile amaieran erantzuna emon eta pertsonaje bideoz egindako alkarriketa bat blogean ipintez arduratzen da.

ZINE KLUBA

Arraun the World Igorreko Zineklubean

Erredakzinoa

Igorreko Zinekluba urrietan hasi zan pelikula hileroko emoten, salbuespenak salbu, hileroko lehenengo egunean, arrastiko zortziretan, proiektu bat egongo da. Pelikulak bersino originalean eskeintzen dira.

Ez da barrikuntza bakar izan hori eta proiektu batzuek batera, pelikula edo dokumentalen

inguruko berbalditxoak egongo da, edo protagonistak eurak bertaratuko dira. Holan, abenduaren 1ean 20:00etan Iñigo Iruartzaren Arraun the World dokumentala eskeiniko da eta bertan izango da bera. Iñigo Iruartzaren "Iru" Olentzoren iloba da filmean. "Gabonak heltzen diranean misino sano garrantzitsu bat dauka: opariak eta bideomezuak leku hurreretan banatzea. Emigranteen ordezkari egiten dau, haren jatorrizko herrialdeak bisitatu eta haren etxekoak zein pertsona kutunak hartu-emonetan ipinita" sinopsiaren arabera.

Gainera, gaiari lotuta dagoenez, emonaldi hau Arratiako Ongi Etorri

Errefuxiatuak kolektiboagaz alkarlanean prestatu dabe zine klubekoak.



DUNBA

Beldur Barik

Zeberioko eskolako 5. eta 6. mailako ikasleak

Gu Zeberioko eskolakoak gara, 5. eta 6. mailakoak. Urri lehenengoaren 22an Eztizen izeneko neska bat etorri jakun tailer bat emoten, guztira lau ordu egun bitan. Informatika eta sare sozialak ekar-ten dabez arazoz berba egin eban. Horren barruan Sexting-a, Sextorsinoa, Grooming-a, Bullying-a, Ciberbullying-a eta kontrola.

Sare sozialak

Sare sozialak (WhatsApp, Internet, Facebook, Instagram eta Snapchat) erabiltea ondo dago; baina kontu handia behar da norberaren informazioa personalagaz, ahal danik eta informazioa gixien emon behar dogu eta.

Bullying-a

Bullying-a beste pertsona batzue- gandik jasoten dan jazarpena da, eta horren barruan honeek dagoz: jotea, iraintzea eta txarto tratetea.

Sano arriskutsua izan ahal da. Eguneroko sufrimendu psikologiko edota fisikoa jasoten danean Bullying-a dala esan daiteke.

Lehenengo jo egingo zaitue, apurka-apurka jente gehiago gehitzen bada hori Bullying-a dala esan ahalko geunke.

Ciberbullying-a

Ciberbullying-a albokoak eta adin berekoak gertatzen da, baina nagusiago batek egitean jazarpena izango litzateke.

Telefono mobikoretik eta Internetetik isekak, irainak, mehatxak... bidaltzen dirala esan gura dau.

Horrek jasotean lehenbailehen gurasoak kontatu behar jakie eta ingurukoak adi egon behar dira.

Kontrola

Bikoteak denpora osoan nogaz

egon zaran jakin gura izatea, mezu pribatuak ikusi gura izatea edo zure deiak ikusi... Hori da kontrola.

Holan jarraitu ezker hau da egin behar dozuna:

-Bikoteari pasatzen dabilala esan.

-Onartzen ez badau ahalik eta arinen moztu.

Grooming-a

Normalean 10etik 15 urtera bitarteko umeak sufriduten dabe pertsona helduengandik. Honek ume papela egiten dabe argaz-

ki pribatuak lortzeako eta lortzean dabezanean xantaia egiten deutsee gazteak. Txat-etan baten batek argazki pribatuak eskatzen badeutsuz hortik urten eta ez agindu inoz.

Sextorsinoa

Pertsona batek beste bateri argazki personal bat bidaltzen deusanean eta besteak gehiago bialduteko agintzen deutso bestela lehenengo argazkia sare sozialetara aginduko dauala esanez. Beraz mehatxupean agertzen da biktimea.

Hori gertatzen bajatze lehenbailehen abisua emon gurasoak, nagusi bateri edo lagun min bateri. Bestela horren ondorio oso gogorra izan ahal da.

Holango pertsona asko dagoz munduan.

Kontuz ibili igoten dozuzan argazkiakaz.

Sexting-a

Norberaren argazki personalak mutil edo nesken bateri bidal-

tzean datza. Eta gehienetan mutilak neskai egiten deutsee. Arazoa gelditzeko heldu bateri esan behar jako. Argazki gehienak biluzik ateratakoak izaten dira.

Ondorioak

Honen guztiaren ondorioak sufrimendu fisiko (ostikoak, ukabilkadak...) edo psikologikoak (depresioa, ez ateratzea...) izan daitezke. Kasu larrietan biktimek euren buruaz beste egiten saiatzen dira. Arazo horren lekuko bazara, salatu.

Eta amaitzeko kontu handia euki sare sozialetan. Espero dogu esan dogunak zeozertarako balio izatea.



DENPORA-PASA

IMAN OLATU

	1	2	3	4	5	6	7
1							
2							
3							
4							
5							
6							
7							
8							
9							

EZKERRETIK ESKOIERA

- 1.- Berrogeta hamar erromatar. Estu.
- 2.- Oinarizko lau odol taldeetako bat. Gogotsu.
- 3.- Ogirako otzara. Galduta dabilen ardiari deitzen.
- 4.- Matxura.
- 5.- Abade. Konsonante bat.
- 6.- Uranioa. Amaren edo aitaren ama.
- 7.- Zerbaki bat. Taut.
- 8.- Bihardamu.
- 9.- Logiro. Nitrogenoa.

GOITIK BEHERA

- 1.- Sutegia. Baltzune.
- 2.- Indaba. Inesiboan, behingoa.
- 3.- Mila erromatar. Arrain mota bat.
- 4.- Ezetza. Informatikan, memoria.
- 5.- Iridioa. Bizileku. Oxigenoa.
- 6.- Garaua. Karta joko bat.
- 7.- Greziako mitologian, Urano eta Gearen alaba. Antxinako hizkuntza bat.

N	O	R	V	O	L	6	O	S	X	X	X	O	H	H	
I	S	I	Z	I	E	8	A	H	E	K	I	P	A	O	G
L	P	L	I	V	B	Z	S	I	S	I	B	I	I	I	I
V	W	V	W	V	U	9	V	V	V	V	V	V	V	V	V
L	A	B	A	V	S	5	I	S	I	B	I	I	I	I	
A	V	E	R	I	A	4	Z	M	I	S	O	S	Y	Z	X
V	B	A	L	B	E	3	I	V	V	V	V	V	V	V	V
Z	A	B	Z	A	L	2	V	V	V	V	V	V	V	V	V
I	L	M	E	H	A	1	V	V	V	V	V	V	V	V	V
7	6	5	4	3	2	1	V	V	V	V	V	V	V	V	V

Topau Txano Gorritxoren ipuinean agertzen diran zazpi elementu.

S	E	R	A	M	U	J	O	K	A
I	B	A	R	R	E	K	O	A	S
N	O	K	A	B	A	R	I	M	A
K	L	E	T	O	B	A	R	I	Z
A	H	E	Z	I	L	E	N	S	O
O	A	H	E	K	I	P	A	O	G
M	T	I	L	D	O	R	T	I	A
U	R	Z	B	A	S	O	A	A	Z
P	E	T	A	B	I	K	E	O	T
U	R	A	B	R	E	D	T	A	U
A	Z	R	X	I	A	S	O	R	A
K	A	I	A	L	O	N	E	B	E
O	L	A	B	A	M	A	M	A	P
T	E	L	I	B	I	S	T	A	R
E	R	R	O	K	A	R	K	S	O

AKI MI KO

Kailo



umean moda
seim
0-16
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnua. 94 631 92 96 • seimoda@hotmail.com

AKESOLO, S.A.
GARRAIOAK, NEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK
Garbe, 29 Telefonoa: 94 673 60 14 IGORRE-BIZKAIA

AKEITEGIA
GATV & LORA
IGORRE

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tfnua 649 86 95 36

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
KOSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
Tlf. 94 631 92 00

GARANTXE Autoeskola
TEORIA EUSKARAZ
ZEIB ERDARAZ
Lehendakari Agirre 31
Tfnua: 94 673 71 32
48140 IGORRE (Bizkaia)
garantxe@telefonet.net

ZUZENBIDE
ASEGURUAK: AUTOAK, ETXEBIZITZAK, DENDAK, ISTRIPUAK, BIZITZA...
ABOKATUAK: ZUZ. ZIBILA, KONTSUMO ZUZ., ADMINISTRAZIO ZUZ., INGURUGIRO ZUZ.
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA, ZERGAK, KONTABILITATEA
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96 Sabino Arana 3, behea - Igorre (Bizkaia)

BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARDO

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
Tfnua: 94-673-70-87
Tfnua: 609-79-40-54

Orre
FOTOKOPIAK - PAPERDENDA
L. Agirre, 2.
48140 Igorre (Bizkaia) Tfnua: 94 673 61 25

Pinturas Aratia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

ARRATIA AUTOESKOLA
karneta euskaraz zein erdaraz
Garbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)
Telefona 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 80
e-posta: unozulu@arratia.net



GARAPENAK SENDOTU EGITEN GAITU

BATZ GROUPen, gure lurraldean erroturiko globalizazioan sinesten dugu.

Pertsonekin konprometituta eta gure balioei eutsita.

Sendoagoak garen heinean, urrunago iristen gara.

BATZ.EUS